

# Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1997ko maiatzaren 30a

\*



Iosu Mujika, ezkerrean, Auzolan liburutegiko beste kide batzuekin batera.

LUIS AZANZA

## Auzolan, 20 urte Iruñean

■ San Gregorioko txokoa utzi eta Tutera kaleko hama-seigarren zenbakian zabaldu du Auzolan liburutegia egoitza berria, hogeigarren urtemuga betetzen duen honetan. Alde Zaharreko kaleari, dena den, ez dio betiko agur erran Auzolanek, Eguberriak baino lehen hango ateak berriro irekitzeko asmoa baitute liburutegiko kideek, Iosu Mujikak azaldu digunez. Oroitzapenak astindu eta orain hogeiturokoak gogoratu ditu, gainera, Auzolanekoak, Iruñeko euskal liburutegia horren ibil-

bideko hainbat giltzarri emanez: liburutegia, adibidez, Bartzelonan jaio zela, han bururatu baizitzaion bost laguneko talde bati halako proiektuari ekiteko ideia; edo literatura, irakaskuntza eta gizarte mugimenduak ardatz izan dituztela, beti lagunaren aholku eta aukerei so eginez; edo 400 metro koadroko egoitza dutela oraindik ezin dutela sinetsi. Baina Mujikak azpimarratu duenez, dena berriak euskarak halako lekua izan dezakeela erakutsi die, ez baita ametsa, errealitatea baizik. ■

### Bi hormetara

JOSETXO AZKONA



Amaiur kaleko arte aretoan sartu orduko ikusi ditut neure aurrean. Hogeita bost urte igaro arren, beren hartan darraite oraindik: eserita eta eskuak belauen gainean bermaturik. Aldean daramatzaten betaurreko ilunek eragozten diete begien kolorea igartzea. Hala ere, aise imajinatzen ahal da, bai horixe!, bi begi ilun eta goibel ezkututzen direla lenteen azpian. Ilun ere bada bestetik, bibotea eta korbataren kolorea, mundura ekarri zituen garaia bezalako: dena grisa, are gehiago, dena ilun, urte haietako kolore nagusiaren berme. Cronica taldeak egindako *Ikusleen ikusleak* dira, *rencontres* hartako zenbait ekitalditan jendartean paratu zituztenak. Ikusi gabe nituen ordutik: gezurra. Batzuetan egokitu baitzait piura horretxeko pertsonekin elkartzea, eta nago, nik neronek ere halako piura izan dudala bestetuzan. *Incontri* haien antolatzaileek ordainduta, sos batzuen truke, bi adiskide eta hirurok aritu ginen artegailu eta beste

### 72ko topaketa haiek

tramankulorik harat-honat garraiatzen. Barre algara artean suertatu zitzaigun, adibidez, tamaina ertaineko kamioi bat *Ikusle* bete Labritetik Gotorlekura zama-tzea. Gu lerroka jarrita eta *delasocial* itxurako panpina haiek eskuz esku elkarri pasatzen genizkion bitartean, erritmo jakin bati jarraikiz, muturreko ederrak banatu genizkien mendeku xalo gisa. Hementzi urte baino ez nituen, eta harriturik geratu nintzen ikusita nola *meetings* haiek zoladuraz gora jartzen zuten Iruñean astun hura. Zortzi egun iraun zuten, eguneko zein gaueko ikuskizunez ezin hobeki homiturik. Liluratzaz gain gauza asko ere erakutsi zidaten *encuentros* haiek: gure auzoaz landa bazirela beste mundu anitz ere, bizi-amildegiaren ertzak beste soinu eta kolorez gogotan hartzen zituztenak. Mundu haietako batzuekin ordea, bazen diferentzia bat esandako ikuspuntua arras aldarazten zuena, hots, *treffen* haiek diktadura baten menpe egiten zirelako. Na-

hikoa zen hura protestari bide egiteko. Guztiarekin ere, Sarasate paseabideko telefono aleatorioak, orduko Europako arte abangoardiaren lanak, ekialdeko musikaren xarma, Diputazioko arkupeetako poesia adierazpen libreak, kupula neumatikoaren barneko emanaldi txoroak, ordu-ra arteko moldeak puskatzen zituzten antzerki obrak eta pelikula ulertezinak, baita Nafarroako Museoa ikusgai-ez ikusgai izan ziren euskal artisten pintura eta eskulturak, Artze anaien txalaparta hotsak... ekimen haiek guztiek gozamen eta asaldura eragin zuten, besterik ez, zuten edo zeharka parte hartu zuten ororen. *Revival* garaia omen dira hauek, seguru asko, ororendako orainaldiak deus gutxi kilikagarririk eskaintzen ez diolako etorkizun kolektiboari. Halakoetan, atzera begiratu beharra besterik ez dago, izanez ere, beti izanen baita gure memoria urrian, babestoki den topaketaren bat edo beste. Altxa kopa eta opa! X

\* **GURE AUKERAK****KONTZERTUAK**

**Aitzoain:** Hirugarren reggae jaialdia egingen dute gaur, gaueko 11:30etatik aurrera, Artsaia Musik Club aretoan. Xuia eta Akatz taldeek kontzertua eskainiko dute. Sarrerak 1.000 pezeta balio du.

**Tafalla:** La destileria de Oviedo taldeak kontzertua eskainiko du gaur Gabalzeko aretoan, gaueko 11:30etan.

**Iruña:** Ritual de lo habitual taldea Reverendos dantzalekuan izanen da gaur, gaueko 10etatik aurrera. Sarrerak 500 pezeta balio du.

**Barañain:** Herriko Santa Maria elizan kontzertua eskainiko dute Bernaola eta Guridi orkestrek bihar, arratsaldeko 8:15etatik aurrera.

**ANTZERKIA**

**Castejon:** *Yerbabuena taldeak Emergencias* lana antzetzuko du gaur, arratsaldeko 7etan, Kultur Etxean.

**Lerin:** Pasadas las 4 taldeak *Baby boom en el paraiso* azken obra antzetzuko du bihar, arratsaldeko 6etan.

**Zangoza:** *Bienvenidos al oeste* taularatuko du igandean Kollins Clown taldeak herriko plazan, arratsaldeko 6etatik aurrera.

**ERAKUSKETAK**

**Ilunberri:** Maria Jesus del Castilloren margoak ikusgai izanen dira igandetik ekainaren 15era bitartean, Udaletxeko aretoan.

**Iruña:** Iruñeko IV. Margolari Lehiaketan parte hartu duten artista onenen lanak ikusgai izanen dira Gotorlekuko Armen aretoan, ekainaren 15era arte.

**Elizondo:** Patxi Elizetxeren margoak eta Virginia Boschen eskulturak ikusgai dira herriko Arizkunenea Kultur Etxean, ekainaren 7ra bitartean. Asteleheneetik larunbatera, arratsaldeko 7etatik 9ak arte dago zabalik aretoa.

**BESTELAKOAK**

**Iruña:** Alde Zaharreko lurrazpiko zerbitzu galeria ezagutzeko aukera dago larunbat eta igandean, ekainaren 21era bitartean. Bisitak goizeko 10etan hasi eta 12:30etan amaitzen dira. Ordu erdikoa da bisita bakoitza. Parte hartu nahi duenak 22 15 06 telefonora deitu behar du.

**Lizarra:** Margolaritza tailerra antolatatu du Gustavo de Maeztu Museoak. Pedro Salaberri izanen da zuzendaria. Abuztuaren 18tik 29ra iraunen du. Klaseak goizeko 10:00etatik 15:00etara eta 16:00etatik 17:30etara izanen dira, eta larunbatean eta igandean jai izanen da. Parte hartzaileek 15.000 pezeta (600 libera) ordaindu beharko dute. Izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko dei 54 60 37 telefonora.

*nafarkronika*

Pello Argiñarena

**Koherentzia eta tila**

**M**aiatzak 22. Goizaldeko ordubiak. Noaingo herria zeharkatzen duen errepidea. Frantziako matrikula duen kamioia hurbiltzen ari da. Batean, gauaren ilunetik azalduko zenbait lagunek gelditu egin dute ibilgailua. Guztien artean, atzean daraman garia deskargatzen lagundu diote kamioilariari.

Biharamunean, UAGN sindikatuak bere presidentearen bitartez, *ekintza* bere gain hartzen du. Horretaz gain, Angel Eraulek, inongo konplexurik gabe, antzeko egoerak errepikatuko direla adierazten du, baldin eta Administrazioak Frantziako nekazarien aurka behar bezalako neurriak ez baditu hartzen.

Gizaseme horren hitzen doinua eta aurpegia bera ere, edonori kezka sortzeko modukoak dira. Dena den, gehien harritzen nauena hau da: bere burua demokratikotzat jotzen duen sindikatu baten presidentek bere gain hartzen du indarkeriaz egindako ekintza bat, eta, gainera,

berriro ere berdin jokatzeko prest ageri da lasai ederrean.

Bitartean, komunikabideek Noaingo gertaera aurretik nekazari frantziarrek egindako txiki-zioen *erantzuna* dela diote.

Nafarroako Gobernuak berak, UAGNko multak *ulertzen* dituela adierazten du.

Gure inguruan bestelako ekintza biolentoen aurrean komunikabideek ez dute «erantzun» hitza erabiltzen eta erakundeak ez dira «ulertzen» saiatzen ere. Beraz, gertaera batzuk eta besteak ez dira berdin neurtzen. Badakit ez dela gauza berria. Benetan harri eta zur gelditu naizen unea, mehatxuka ari zen Eraul jaunaren paparretik lazo urdina zintzilik ikusi dudanean izan da. Maiz aski ikusi dugu UAGNko burua (?), bakea, tolerantzia eta errespetuaren izenean hitz egiten, nahiz eta bitartean, esate baterako, Itoitzen aurka dauden ekologistak Pitillasetik harrika bidali.

Koherentzia eta tila pixka bat, Eraul jauna.

*asteko pertsonaiak*

**Javier Zubillaga**  
Osasunako kirol zuzendari ohia

■ Osasunak Javier Zubillaga kirol zuzendaria kaleratu du. Pedro Senosian taldeko idazkariak astelehenean eman zuen ezagutzera zuzendaritzak hartutako erabakia, bazkide konpromisarioen Ezohiko Batzar Nagusian. Zubillaga gorritxoek aurtengo denboraldian lortutako emaitza txarren ondorioz kaleratu du Osasunak. Iazko apirilaren 16an kontratatu zuen. Zuzendaritzaren baimenarekin, 189 milioi pezeta gastatu ditu kirol zuzendari ohiak jokalar berriak fitxatzeko eta 56 aurreko urteko beste jokalar batzuk kaleratzeko, baina Zubillagak hartutako erabakiek, bistan da, ez dituzte espero ziren emaitzak ekarri.



**Jorge Cortes Izal**  
Euskaltzalea

■ Jorge Cortes Izalek jasoko du aurten Euskalerrria Irratiaren Larreko saria. Kike Diez de Ultzurrun irratiko esatariak astelehenean eskaintako prentsaurrekoan azaldu zuenez, Cortes Izalek 60. hamarkadan lehen ikastolen sorreran egin zuen lan mardul eta isila saritu nahi izan dute, eta, halaber, garai horretan ekimen berean lan egin zuten euskaltzale ororen. Euskaltzale destakatuak ohoretzen ditu urtero Euskalerrria Irratiak Larreko sariaren bitartez. Cortes Izal saria emateko, afari herrikoia antolatatu du irratia ekainaren 13an, Uharteko Toki Alai pilotalekuan. Dagoeneko afari horretarako txartelak salgai daude irratian bertan eta Iruñeko Karrikiri elkartearen eta Abarzuza, Xalbador eta Auzolan liburudendetan.

*ahaztu gabe!***BIZIKLETA MARTXA**

**Bardeak:** Azken urteetan egin legez, Bardeetara joateko bizikleta martxa antolatatu du aurten ere Iruñeko Dordoka Nagia taldeak. Bihar goizeko bederatziak eta laurdenetan Iruñeko Gaztelu plazan jarri dute hitzordua antolatzaileek. Handik kamioiz eramanen dituzte bizikletak Erriberrira, eta partaideak autobusez joango dira hara. Bizikletak hartu eta Bardeetara abiatuko dira guztiak, Bardeetan emanen baitute gaua. Biharamunean, ekainaren leian, Bardeetako poligonoaren aurkako martxan parte hartuko dute txirrindulariek. Igandekoa, hain zuzen ere, poligonoaren aurkako taldeek antolatzen duten martxaren hamargarren ekitaldia izanen da.

Igandeko ekitaldiak amaitu ondoren, Iruñera itzuliko dira martxako partaideak. Bizikletak kamioiz ekarriko dituzte, eta partaideak autoz eta autobusez itzuliko dira. Dordoka Nagiak antolatatu bizikleta martxan parte hartu nahi duenak 24 72 99 telefonora egin behar du dei eta Andonirekin hitz egin, izena emateko.

*adi!***Euskalerrria Irratia FM 91,4**

Egunero asteleheneetik ostiralera, *Zokobetailu* goizeko 10.00etatik 12.00etara.

**Xorroxin Irratia FM 107,5**

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteen-dako saioa.

**Aralar Irratia FM 106,2**

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarriketak.

**Irati Irratia FMko 107.7n eta 103.8n**

Ostiralero *Txirristi-Mirristi* haurrentzako saioa 12.30etan.

## Garralda

## Herriko kale eta etxeak euskaraz

Euskal izenak ofizializatzeko erabakia hartu dute berriki Garraldako Udaleko kideek

**G**arraldako Udalak bultzada berria eman nahi izan dio euskarari, eta herriko etxe eta kaleen euskal izenak ofizializatzeko erabakia hartu du berriki. Izen zerrenda berria beharrezko erakunde guztietara bidali dute jada, erdal izenak baztertuz. Sales Santos Garraldako alkateak azaldu duenez, lehenagoko ohiturak berreskuratzeko Udalak agertutako nahiari dago lotuta inizatiba hori.

Erredakzioa / Iruñea

GARRALDAKO udalbatzarrak herriko kale eta etxe guztien euskal izenak ofizializatzeko erabakia hartu du berriki. Horretarako, Udaleko Euskara Zerbitzuak ikerketa egin du, jatorrizko izenak zeintzuk diren jakiteko asmoz. Alde batetik, Iruñeko Artzapezpikutzako Artxibo Nagusiko agiriak hartu dituzte informazio iturri, eta bestetik, Garraldako Udaleko bertako artxiboak aztertu dituzte.

Artxiboetan herriko etxe askoren izena aurkitu dute, baina horietako asko ez da existitzen jada, herrian gertatu suteak direla-eta. Halaber, lekuz aldatu dira zenbait etxe, bai eta izen berria hartu ere beste askok. Hori dela eta etxe askoren izenak jabeentzat ezezagunak izan daitezkeela ohartarazi du Garraldako Udaleko Euskara Zerbitzuak, baina beti ere jatorrizko izena bilatzen saiatu direla azpimarratu.

Kale eta etxeen euskal izenak ofizializatzuz, herrian euskarari utsi eta, halaber, erabilera nor-



Garraldako kale eta etxeen euskal izenak ofizializatzeko erabakia hartu du Udalak.

ALBERTO BARANDIARAN

malizatu nahi dute Udaleko kideek, «hori baita herrian beti erabili izan den hizkuntza», azpimarratu du Garraldako alkate Sales Santosek. Aurrerantzean, beraz, erdal izenak baztertu eta euskarazkoak izanen dira ofizial. Beharrezko erakundeetara bidali dute jada izen zerrenda Udaleko kideek.

Ekimen horrekin, herrian euskara berreskuratzeko giroa piztu nahi izan du Garraldako Udalak, baina Sales Santos alkateak gaineratu duenez, «askoz zabalagoa da gure asmoa, herriko ohitura eta usadio zaharrak berresku-

ratu nahi baititugu, lehenagoko bizimodua, finean». Garraldako alkateak, hain zuzen, oraindik egiten diren batzarren eta auzolanaren garrantzia azpimarratu du.

Euskarari dagokionez, herrikoa berreskuratzeko ahalegina egin dutela gaineratu du alkateak. Horretarako, hain zuzen, Garraldako euskaldun eta euskaltzaleengana jo du Euskara Zerbitzuak, Gregorio Pedroarenarengana, besteak beste.

Garraldako Udalak egindako lanak emaitzak eman ditu. Garraldan, eta Aezkoan oro har,

jabearen izena adierazten dute etxe izen gehienek, bai eta lekua eta jabearen lanbidea ere. Jabearen izena hartzen duten etxeen artean Maisterreina, Ximurriena, Ernautena, Apatena, Fantxena, Jakuena, Errotazeina, Bizkeina, Domentxoina, Arandoina eta Goiburueina aipa daitezke; kokatuta dauden lekua adierazten duten etxeen artean, berriz, Iturraldekoa eta Etxabarrengo, adibidez. Zerrenda, dena den, askoz luzeagoa da. Etxeen izenak zehazteko, ahozko tradizioa hartu dute oinarritzat Euskara Zerbitzuko kideek. X

## Ezkaroze-Otsagabia

## Euskararen Eguna bihar eta etzi ospatuko dute

■ Pirinioetako AEK-k ekitaldi ugari antolatu du

Erredakzioa / Iruñea

PIRINIOETAKO AEK-k antolatuta, Euskararen Eguna ospatuko dute bihar Ezkarozen, eta etzi Otsagabian. Ezkarozeko egitarauari dagokionez, arratsaldeko 5etan euskaraokoa izanen da, eta zazpietatik aurrera, jaialdia prestatu dute. Horren barruan, Zaraitzuko eta Aezkoako musika eskoletako ikasleek parte hartuko dute, bai eta Zaraitzuko eta Zangozako dantza taldeek eta Otsagabiako abesbatzak ere. Ondoren, gaueko hamabi eta erdietatik aurrera, dantzaldia izanen da Trikitixa Kontrairo taldearekin. Igandean Otsagabian ospatu-

ko dira Pirinioetako AEK-k antolatutako Euskararen Eguneko ekitaldi guztiak. Goizeko hamaitan gaiteroak herriko karraketan barrena ibiliko dira giroa alaitzen. Ondoren, 11:30etan, umeentzako tailerrak izanen dira, eta arratsaldeko ordu batean, erraldoiak izanen dira protagonista. Zangoza, Agoitz, Ilunberri, Oibar, Aurizberri eta Otsagabiako konpartsak bilduko dira.

Arratsaldeko hiruretan, herri bazkaria eginen dute eguneko ekitaldietan parte hartuko duten guztiak. Kristian Borda taldearen doinuak alaituko du giroa. Egun osoan, gainera, gaitari, trikitilari, fanfarre eta txistulariak ibiliko dira kalez kale. X

## Burlata

## Ikastetxeko besta eguna ospatuko du Ermitaberrik

■ Igandean izanen da, goizeko 10etatik aurrera

Erredakzioa / Iruñea

BURLATAKO Ermitaberri Ikastetxe Publikoa Kultur Zikloa ospatzen ari da. Atzo hasi ziren ekitaldiak eta gaur bukatuko dira. Bihar ikastetxeko besta eguna ospatuko dute. Gaur, hain zuzen, arratsaldeko 4:30etatik 6ak arte, eskulan erakusketa izanen da ikastetxean. Arratsaldeko 6etan, halaber, hiru eta zortzi urte bitarteko haurrek filme bat ikusteko aukera izanen dute, eta besteentzat, alpinismoari buruzko hitzaldia eta ikus-entzunezkoa prestatu du Jose M<sup>a</sup> Oñatek.

Bihar, azkenik, ikastetxeko besta eguna ospatuko dute Er-

mitaberriko ikasle, irakasle eta gurasoek. Goizeko 10etan hasiko dira eguneko ekitaldiak. Ordu horretan hiru eta hamabi urte bitarteko haurrentzat jokoak izanen dira. Ondoren, 11:45etan, herri kirolak ikusteko aukera izanen dute ikastetxean bildutakoek, Migeltxo, Nartxi eta Kristina Saralegi anai-arreben eskutik. Eguerditik arratsaldeko 2ak arte eskulanen erakusketa izanen da, eta letan, Larratz eta Ermitaberri dantza taldeen erakusketa.

14:30etan herri bazkaria eginen dute ikastetxeko kide guztiak, eta, ondoren, 5etatik 7ak arte, Nagore musikariarekin dantzaldia izanen da. X

## Berriozar

## Igandean bukatuko dira Euskararen Asteko ekitaldiak

Erredakzioa / Iruñea

BERRIOZARKO UDALEKO Euskara Zerbitzuak antolatuta, Euskararen Astea ospatzen ari dira egunotan herriarrak. Asteazkenean hasi ziren ekitaldiak eta igandean amaituko dira. Gaurko egitarauari dagokionez, arratsaldeko 5:30etan Mendialdea ikastetxean Korrika Txikiari buruzko diaporama eta bideo emanaldia izanen da, eta 7etan, Gaztetxe eta euskaltegiko ateraldi buruzkoa.

Bihar, bestalde, goizeko 11:30etan haur antzerkia izanen da Zirko Ttipia taldearen eskutik. Eguzki plazan eskainiko dute *Hau txandria* lana. Arratsaldeko 1ean, halaber, bertso saioa izanen da leku berean. Estitxu Arozena, Mikel Altzuart eta Xabier Silveira ariko dira kantuan. Arratsaldeko 8etan, azkenik, euskal rockari buruzko hitzaldia izanen da Gaztetxean, eta, ondoren, kontzertua.

Igandean amaituko da Euskararen Astea. Eguerdian, Donapaleuko euskaltegiko kideak joanen dira bisitan Berriozarrera. Fanfarre eta txarangek alaituta, herri kirolak izanen dira. Arratsaldeko 2:30etan, berriz, herri bazkaria eginen dute. X

## Ororbia-Izu

## Ekitaldi ugari antolatu dituzte Oltzako Zendeako jaiak ospatzeko

Erredakzioa / Iruñea

MAIATZAREKIN batera hainbat herritako bestak allegatu dira. Egunotan Oltzako Zendea ari da jaiak ospatzen. Gaur, arratsaldeko 8etan, hitzaldia eta bideo emanaldia izanen da Itoizko urtegiari buruz Ororbiako Udaletxean. Eta gauerdian, rock kontzertua eskainiko du Doctor Kronismo taldeak Izun.

Biharko egitarauaren barruan ekitaldi ugari izanen dira. Goizeko 11etan Izun, haurrentzako jolasak prestatuko dituzte, gaztelu puzgarri eta guzti. Arratsaldeko 5etan, berriz, futbol partidua izanen da Ororbian, eta 6etan eta 7etan, neska eta mutilen pilota partidua. 8:30etan, azkenik, mus txapelketako erdifinalak jokatu dituzte Izun. 8:30etatik 10ak arte, eta gauerditik goizaldeko 4:30ak arte dantzaldia izanen da Elurte taldearekin Izun.

Igande eguerdian artisautza erakusketa izanen da Izun, eta 1:30etan, mus txapelketako finala jokatu dute. Herri berean herri kirolak izanen dira arratsaldeko 5:30etan, eta ordu bete beranduago, Sambhu antzerki taldeak *Gure lurreko kondairak* lana eskainiko du. X

Auzolanen 20.  
urtemuga Iruñean

# San Gregoriotik Tutera kalera

Egoitza berria zabaldu du Iruñeko Auzolan liburudendak, 20. urtemuga ospatzen duen honetan

**J**oan den asteartez gerotik, zabalik da Tutera kaleko hamaseigarren zenbakian Auzolan liburudendaren egoitza berria. 400 metro koadroko denda horretan, betiko liburuak ikusi eta erosteko aukera ezezik, paperdenda, edozein kontsulta egiteko ordenadoreak eta erabileran anitzeko gela aurkituko dituzte irakurle eta bezeroek. Bai eta prentsa saltzeko kioskoa ere laster. Erronka berri anitz, beraz, Auzolanek 20. urtemuga betetzen duen honetan.

Edurne Elizondo / Iruñea

ALDE ZAHARREKO San Gregorio kaleko txokoa utzi ondoren ailegatu da Auzolan Tutera kaleko egoitzara. Joan den astean zabaldu zituzten liburudendako kideek egoitza berriko ateak, baina oraindik ezin sinetsirik dabilta. «Denda berriak erakutsi digu posible dela euskarari halako lekua ematea, eta bestetik, jendeak guri laguntzen jarraitzen duela, nahiz eta hogei urte pasatu eta hogei urte zaharragoak izan», diote.

San Gregorio kaleko egoitza asmo berriak aurrera eramateko txiki gelditu zaielako zabaldu dute denda berria Auzolaneko kideek. Alde Zaharreko txokoari, dena den, ez diote betiko agur erran, Auzolaneko Eguberriak ailegatu baino lehen hango egoitza berriro zabaltzeko asmoa baitute. Proiektu berria oraindik zehazteke badago ere, liburudenda espezializatua izan daiteke San Gregoriokoa hilaibete gutxi barru. Orain 20 urte sortu zen leku berera itzuliko dira, beraz, Auzolaneko liburuak.

Orain 20 urte, Bartzelonan jaio zen Iruñeko Auzolan, bost laguneko talde baten eskutik: bi bizkaitar, bi gipuzkoar eta nafar bat. Tartean zen Iosu Mujika, eta harekin batera, Txema Aranaz, M<sup>a</sup> Cruz Azpeitia, Jose Agustin Iturri eta Javier Zenikazelaia. «Bartzelonan ikasten ari ginen eta elkarrekin bizi ginen pisu batean. 1977a azken urtea genuen, eta denok irakaskuntzara kondanatu ikusten genuen geure burua. Hori zela eta, liburudenda zabaltzeko erabakia hartu genuen», azaldu digu Mujikak.

Hasierako boskote hartatik Iosu Mujika da liburudendan jarraitzen duen bakarra. Beste bik Auzolanek berak sortu banaketa etxean egiten dute lan, Txema Aranaz liburudendan bertan jaiotako Pamiela argitaletzeko kide da, eta bosgarrenak bazter utzi du liburuen mundua, nahiz



Tutera kaleko hamaseigarrenen 400 metro koadroko denda zabaldu du Auzolanek. LUIS AZANZA

eta denek harreman estua izan oraindik Auzolanekin.

Liburudenda zabaltzeko erabakia hartuta, boskoteak argi zuen euskal liburudenda izan behar zuela. Donostian eta Bilbon bazen halakorik, ez ordea Iruñean eta Gasteizen. Iruñera etortzea erabaki zuten, nafarra (Azkoienkoa) zelako taldekideetako bat. Hasierako une eta asmo haiek gogoratuz, liburudenda zabaltzea oso ideia erromantikoa izan zela azpimarratzen du Iosu Mujikak, «ikasle batzuen ideia, errealitatekin nahiko urruna». Izan ere, Iruñean euskal liburuak saltzea erraza izan zela pentsatuagatik, ez baitzen hala izan.

Bartzelonatik Iruñera ailegatu eta gero, hamabost egun besterik ez zuten behar izan Auzolan liburudendako kideek San Gregorio kaleko egoitza aurkitzeko, eta dendako giltzak eskuratuta beste hamabost egunetan presatu zuten dena, Auzolan liburudenda berria zabaldu ahal izateko. «Hasieran ez zen zaila izan liburuak ordaindu gabe eskurtzea, argitaletxe gehienak prest baitziren uzteko», gogoratu du Iosu Mujikak.

Janaridenda izandakoa liburudenda bilakatu zen horrela. «Hasieran oso gutxi saltzen genuen, baina ez genuen gauza handirik behar. Denda zabaldu eta bi urte igaro ziren arte ez genuen eskuratu lehen soldata. Garai hartan euskarazko eskolak emanez irabazten genituen barrunak. Gizarte Ikasketetarako Talde Eragileko (IPES) egoitzan guk eman genituen lehenengo euskarazko klaseak», aipatu du Auzolaneko kideak.

Mujikak gaineratu duenez, «Bartzelonan genuen ikasle bizi-



Berrikuntzak egin badituzte ere, liburuak da oraindik ardatz Auzolanen.

LUIS AZANZA

modu berarekin jarraitu genuen. Bartzelonako pisua Iruñera ekarri genuen. Estafeta kalean egon ginen lehendabiziko, bi hilabetez, eta Olite kalean gero, bi urtez». Karrera amaitu berri zuten bost ikasle haien ideia erromantikoak, dena den, eman zuten laster emaitzarik, eta 60 metro koadroko -140 metroko lokala zen, baina hasieran zati bat bes-

terik ez zuten erabiltzen liburuak saltzeko— lehenengo denda 400 metro koadroko liburudenda da gaur egun.

'Pamiela' eta 'Korrok' • 60 metroak 400 metro bilakatzeko bide horretan, asko izan dira Auzolaneko kideek egin behar izan dituzten urratsak. Tartean, Pamiela eta Korrok literatur aldiz-

kariak sortu dira Auzolan liburudendaren sabeletik. «Gure semerik kutunenak dira, maiteenak». Haien sorrera nolakoa izan zen ere argi dauka buruan Iosu Mujikak.

Pamiela-ri dagokionez, aldizkariaren lehen zenbakia liburudendan bertan eta Auzolaneko diruarekin egin zela gogoratu du dendako kideak. Txema Aranazek hartu zuen lan horren ardurua, Auzolanen inguruan garai hartan biltzen zen idazle multzoa antolatzeke lana, alegia. Auzolanen zortzi urte eman ondoren, denda utzi eta buru-belarri sartu zen Aranaz Pamiela argitaletzeko lanean. Auzolanekin izan duen eta duen harremana, dena den, oso ona izan da beti.

Txema Aranazek ere fresko ditu buruan garai hartako oroitzapen eta bizipenak: «Oso oroitzapen onak dira. Garai hartan, gauza guztiei buruz ikuspegi politikoagoa genuen denok eta uste genuen euskal liburudenda zabaltzea lan garrantzitsua zela. Hasierako uneak orain gogoratuz, dena den, esan beharra dago hastapenak zailak izan zirela. Hainbat urtez elkarrekin bizi izan ginen denok, eta elkarrekin joaten ginen leku guzietara. 5.000 pezetako lehen soldata kobratu arte urteak igaro ziren».

Pamielako kidearen ustez urte haietan egindako lana oso garrantzitsua izan da Iruñean: «Ordurako euskal gaia lantzen zuten bi liburudenda bazeuden, Abarzuza eta Areta. Horiek izan ziren aitzindariak, baina Auzolanek eman zuen benetako bultzada. Gainera, Nafarroan barrena hainbat urtez aritu ginen liburuak banatzen».

Pamielaren sorrerari buruz ere

Auzolanen 20.  
urtemuga Iruñean

mintzatu zaigu Txema Aranaz. «Liburudendako dinamikak berak ahalbidetu zuen Pamielaren hasiera. Iruñeko idazle asko han biltzen ginen orduan (Pablo Antónana, Miguel Sanchez-Ostiz, Victor Moreno, Pello Lizarralde...), eta hainbat gauzari buruz hitz egiten genuen. Han sortu zen buletin moduko bat egiteko ideia, eta horrela sortu zen *Pamiela* aldizkaria. Giroa oso ona zen gure artean, nahiz eta denak iritzi berekoak ez izan, batzen gintuzten gauzak banatzen gintuztenak baino gehiago zirelako. Euskal gauza guztien inguruan halako babesa sortu zuen Pamielak. Laguntza eta errespetua ziren nagusi».

Korrok-en sorrera Pamielaren antzekoa izan zen. Aldizkari lehen zenbakia Auzolanen bertan eta liburudendako diruarekin sortu zen. «Jon Alonso, Aingeru Epaltza, Bingen Amadoz, Kike Diez de Ultzurrun eta beste ibiltzen ziren lan horretan. Gero, bakarrik ekin zion Korrok-ek bere bideari. Azken finean, gure asmoa ez da inoiz izan dena gureganatzea. Baina, du-darik gabe, *Pamiela* eta *Korrok* hagitz garrantzitsuak izan dira guretzat», azaldu du Iosu Mujikak.

Iritzi bera du Iosu Mujikak Auzolaneko kide, lagun eta bezero izan diren Iruñeko idazleei buruz. Idazleen eta Auzolanen arteko harremana, gainera, hasieratik izan da estua. Dendako kideak gogoan ditu larunbat goizero hainbat urtez Auzolanen egindako tertuliak: «Ez zegoen kontsignarik, ez zegoen deialdirik, baina han biltzen ziren denak larunbat goizean, dendako edozein txokotan, talde txikiak egin eta solasean aritzera».

Oro har idazleek liburudendan izan duten eraginari buruz, argi eta garbi mintzatu da Auzolaneko kide Iosu Mujika: «Neurri handi batean gure ibilbidea markatu dute. Idazle asko ezagutu dugu, horietako asko lagun izan ditugu, eta haien aholku, erosketa eta idazketek asko markatu dute liburudenda».

Euskal idazleei dagokienez, halaber, Iruñean egoera asko aldatu dela azpimarratu du Mujikak: «Iruñean, gaur egun, badira bi argitaletxe euskaraz lanean, Igela eta Pamiela, eta idazle gazte eta berri asko dago gainera. Hor dir, besteak beste, Pello Lizarralde, Juanjo Olasagarre, Jon Alonso, Aingeru Epaltza, Patxi Zabaleta, Iñaki Zabaleta, Juan Kruz Lakasta... literaturan asko mugitu dira gauzak».

**Literatura, irakaskuntza eta gizarte mugimenduak** • Idazleak, dena den, ez dira Auzolanen liburudendaren ibilbidea finkatu duten bakarrak. «Ikastolei lotuta hasi ginen. Lehenengo bi urteetan erosten genituen prezio berran saltzen genituen ikastolako testuak. Literaturarekin batera, hain zuzen, gure ardatzetariko bat izan da irakaskuntza. Saldu genituen lehen liburuak ere, euskara ikasteko metodoak eta hiztegiak izan ziren». Egoera, noski, ez da berdina gaur egun, euskarak berak ere presentzia handiagoa baitu egunotan Iru-



Auzolan Liburudendako San Gregorio kaleko egoitza, hasierako urteetan.

AUZOLAN

ñean. «Jada ez gara euskararen apezak», aipatu du Mujikak, «urte askoan gu izan baikara jendeari zer metodo erosi edo gurasoei haurrentzat zer liburu erosi esan diegunak».

Bada Auzolanen garrantzi handiko beste ardatz bat ere, Mujikak nabarmendu duenez: gizarte mugimendua, alegia. «Lagunek segitzen zuten bidea segitu du Auzolanek, eta horrela

iritzi gara iritsi garen tokira». Eta euskal kulturaren alde egindako lan horretan, Iruñean jende askorentzat Auzolan erreferentzia izan dela uste du gipuzkoarrak. «Pertsonalki, esperientzia on eta

aberasgarria izan da niretzat. Gure asmo nagusia euskararen alde eta euskaraz normaltasunez lan egitea izan da beti, eta hori posible dela erakustea. Eta lortu dugula uste dut».

## Papera

**A**uzolan liburudendak hilaren 20an zabaldu zuen Tuterako kaleko 16. zenbakiko egoitza berria, eta 22an, inaugurazio ofiziala egin zuten dendako kideek. Ekitaldi hartan Pello Lizarralde idazleak irakurri testua dugu ondokoa.

Memoria ona dudala esaten didate lagunak, kontrario gogorra izanen nintzatekeela Trivial jokuan edo antzeko lehiaketa batean. Ez dute sumatu ere egiten, ordea, irakurri ditudan liburu guztiak ahantzi ditudala, ez dudala esaldi edo zita bat bera ere gogoratzen. Eta horrek badu alde onik. Autobiografia bazter utzi eta biografia jotzera behartzen nau. Hurkoaren ametsak entzutea baino aspergarriagoa izan daiteke, baina ez zait hain nekeza. Eta, gaurkoan, nire bizitzako bi gertaera aipatuko ditut.

Hamabost urterekin lortu nuen monagilo izatea eta hogeirekin liburu-saltzaille lanean hastea. Bi gertaera hauek ez daude lotuak, ez bada biek sentiarazi zidaten pozagatik. Bi urteren buruan utzi nion elizara joateari, hiru hilabete iraun nuen liburuak saltzen.

Izan ere, ez nuen gehiago behar izan oharrezko liburudenda ez dela liburuak irakurtzeko lekurik egokiena. Liburu saltzailleak, izan gaitzen egitiak, bezero askok baino gutxiago irakurtzen du, eta ikusten ez den eginkizun askoren morroi bihurtu da. Zenbat jendeak daki, konparazio batera, albaraneatu aditza jokatzeko?

Liburu saltzailleak, gaurko egunean, helburu askoz ere jasoagoak dauzka. Kamarero batzuen maila berean dagoela esanen nuke, eta taxistak dauden lekutik beste mu-

turrean. Taxista baimenik eskatu gabe mintzatu zaizu, eta liburu saltzaillea, berriz, beste erremediorik ez daukanean. Istoria ugari kontatu lezakete, baina nahiago izaten dute bitartekariaren itzala, entzule izatea hautatu dute, eta ikaragarri ikasi dute entzutearen poderioz. Ofizio hau hurbiletik ezagutzen duenak aski ongi daki liburu saltzailleak Osasunbideako plantilan egon beharko luketela.

Neuk ere tratamendu honen onurak jaso ditut denbora luzez, eta eskerrak eman beharrean nago. Alabaina, ulertzen zaila den zerbaitegatik liburudenda berriak ireki eta ireki ari diren honetan, zergatik aukeratu nuen Auzolan eta ez beste bat?

Nik esanen nuke eguraldia erabakigarria izan zela. Uztaileko arratsalde sargoritsu batean jo nuen Gaztelu Plaza. Txapitelako ertzean nintzela zera galdetu nion han topatu nuen mutil bati: «Atzu, faborez, El Parnasillo liburudenda?». Mutilak argibide eta xehetasunak eman ahala izerdia nabaria goa zen nire arpegian. Ez zituen azalpenak bukatu. Urrikitik egin zen: «Hemen hurbil bada beste bat...», esan zidan. Eta hala ikasi nuen oraindik ahantzi ez dudana bidea. Baituen eta badituzten zerbait arrazoi.

Lehenengoa garbi daukat: sartu nintzen aurrenekoan ez ninduten liburu lapurtzat hartu, eta hori bihotzean josita geratu zait. Edozetin nafarrek jakin beharko luke gipuzkoarrok abilak garela oso perretxikuak ebasten, baina liburu aferetan dardar egiten digula eskuak; gainera, gogoan izan probintzianook ere badugula gure kodea, eta ez dugula kalterik egiten beste probintziano bat den lekuan.

Ia aurreko arrazoiari adina garrantzi ematen diot hurrengoari. Liburudenda honetako langileak ez dira sinpatiko profesionalak, eta ez dute galderarik egiten: «Lagun

zaitzaket?, Can I help you?». Zuhurrak izaten ikasi dute, ez dute inoiz uste izan bezeroek baino gehiago irakurtzen dutenik, eta jakitun dira nora joan diren aholkuak literatur gehigarriak agertzen hasi zirenetik. Hirugarrena ere ez da euli kaka. Tabernetan bakarrik edateko eta jateko ohiturak lohitutako ospea liburudendetan berreskuratu daitekeela ikasi genuenok hersteo ordura arte geratzen gara. Eta Auzolan-ekoek estilo haundia erakutsi dute beti jendea kalera-tzeko. Ez dute musika edo argia itzaliko, goseak amorratzen daudela esanen dizute edota zinemako azken saiora iritsi nahi luketela.

Neurrrian hitzegiten ikasi duten gehienen moduan, berehala ezagutzen dute zertara heldu zaren. Badakite ez duzula peñarik, ezta kodrilarik ere, ez daukazula paseietara ateratzeko txakurrik, ez zaitzula gimnasioetako izerdi usaina atsegin; berehala antzematen dute ikastaroetara joateko behar den irmotasuna falta zaizula eta zinema karteldegian ez dagoela zure gustuko ezer; badakite izaten direla horrelako arratsalde, nola esan... zera... txepelak, eta zure pausok honaino ekartzen zaituztela, paper inprimatuak beti egiten duela konpainia pixka bat, zu bezalako beste batzuk ere badirela eta menturaz zu bezala ibiltzen den hori topa dezakezula. «Zer dugu, Pello?», Josuk. «Hementxe». «Zer moduz, Mertxe?», nik. «Beti bezala», hark. «Kontaidak txiste bat», eskatzen dit Joxe Marik. Gaizki kontatzen ditut, baina berdin estimatzen dizkit. Dotoreak. Dotorea izatea esaten diot nik horri.

Liburuek kontatzen dutena ahantzi egiten zait, baina ongi gogoan dauzkat liburu horiek saldu dizkidatenean keinuak eta adieratasuna.

Egun zinetenoi millesker, eta oraindik zaudetenoi esker mila eta beaje on dagizuela. ✱

## Pertsonen zuhurtzia

■ Orain dela aste batzuk Izabako Pedro Miguel Etxenike fisikari ospetsuak honako hauxe esan zuen, besteak beste: alegia, bere ustez gaur egungo munduaren bi arazorik larrienak txirotasunarena eta ekologiarena direla.

Beranduxeago, ordea, Jesus Altunak, Barandiaran Fundazioko Patronatuko antropologo eta lehendakari berriak, beste hauxe adierazi zuen gauza ugariaren artean: hots, «gizakia ez da hondatuko; jakingo du bere barrutik etorkizuneko gauza onak ateratzen».

Hara ba, bi ideia horiek burura etorri zaizkit, orain dela gutxi jakin dudalako komunikabideei esker Kanadako mendebaldeko baso zoragarri eta urtetsuak hasi direla ustatzen enpresa batzuk, batiere gupidarik gabe.

Albistearen programa horretan ikus zitekeen nola hasi diren soiltzen mendiak eta oihanak, hango enborrak eskuratzearren.

Beti gertatu izan zait bitxia bezain tamalgarria egitate hori, hau da, gorago aipatu dudan eskualdean nola Brasilio oihan tropikal zoragarrietan, behin baino gehiagotan ikusi baitut, enpresa horien jokabidea dela oihanak eta basoak soiltzea eta suntsitzea. Zera esan nahi dut, hara, beren makinak eta lanabesak erabili eta igaro ondoren landareak utzi ohi dituztela segagailuak belardia uzten duen moduan, hau da, deus gabe eta guztiz biluzturik.

Nik herrian beti ezagutu dut jendeak egin duela basoan bakanketa, alegia, basozainak markatzen ditu bota beharreko zuhaitzak, eta horiek baino ez dira mozten. Horrela, basoak beti jarraitzen du bizirik; baina Brasilen, Kanadan eta beste leku askotan ez dute era horretan jokatu. Dirudenez, dena soiltzea askoz ere onuragarriago izango da hasiera batean, baina gero? Etorritzunean zer gertatuko ote da?


Kanadako azken kasu horretan, telebistan esan zuten, baso horietako arduradunek edota enpresariak konpromezua hartzen dute berriz ere birlantatzeko gorritutako lurra, baina ikusi beharko da noiz eta nola egiten duten.

Hasieran Pedro Miguel Etxenikek aipatutako bi gai horietatik ekologiarenari helduz, esan daiteke, gaur egun, eta batez ere mendebaldeko gizartearen orokorrean denok bizi garela kontsumismoaren eromenean erabat murgildurik, eta horrek eramanen gaitu gehiegi xahutzera, modu desegokian, larregi kutsatzera eta gutxiegi birziklatzera, hitz gutxitan esanda.

Ziur aski, gehiago baloratu beharko genukeena

zera da, Lur planeta bakarra dugula, eta zenbat eta gehiago izoratu ekologia aldetik, bere biztanleok orduan eta makurrago moldatuko garela salbuespenik gabe, batik bat luzarora begira.

Ez genuke ahaztu behar azken urteotako gizarteak Lur planetari sortarazi diola zauri larri ugari; baten bat aipatzearen hortxe di-



tugu ozono geruzaren zuloak, negutegi efektua, uraren, airearen eta luraren kutsadura eta abar. Eta ez da txantxetako gauza.

Oso garbi dago basoak eta oihanak planetako birrikak direla. Bestaldetik, ez dago zalantzarik lurra gorrituz gero azkarrago txirotzen direla higadura dela-eta.

Ohartu al zarete inoiz zenbat zuhaitz mozten diren alferrik, bakar-bakarrik gure etxetaraino egunero-egunero irits dakigun propaganda aspergarria? (Bide batez aprobetxa dezadan esateko eskubidea dugula propaganda horri uko egiteko).

Jesus Altunak bezalaxe, sinetsi nahi nuke gizakiok zentzudunak izanen garela, baina dena den, begira ezazue zein den antropologoaren beraren kezka handi bat: «Ikusten dut indar ekonomiko handiak dabilzaka dantzan, eta indar ekonomiko handi horiei ez zaiela batere axola ez etorkizuna, ez gizakia, ez ekologia, ez munduaren egoera, ezta beste ezer ere. Beren patrikak bete eta kito». ■

## Euskal dantzaren egungo bi bidailariren testigantza

■ Waldo Frank estatu-batuarrak 1924.ean Penintsulan burutu bidaiaren berri *Virgin Spain* izenburuko liburuan eskeini zion 1926.ean. Arestikoa da espainerara egin irulketa, 1989.ekoa, eta jatorrizko testuak hobetsi ohi baditugu ere, egilearen lagun mina zen Alfonso Reyesek ondu sarrerak eskeintzen dizkigun datu elirengatik ordea intereseko edizioa agitzen zaigu. Euskaldunon berri kapitulu bakarrean eman zuen, eta, apika, tonu erromantikoez: *Chapter XII: The comedy of basques*. Gure dantzen deskribapen hagitx pertsonala egin zuen, errealtatetik gehixegi hastantzen ez litekeena: «Gabean tabernaz inguraturiko plazan elkartzen dira, eta zaharrek edaten duten bitartean, gazteek dantzatzen dute. Dantza ariketa goxoa da, ibilkeratik eta mintzotik arras hurbil legokeena». Zenbait aldairen deiturak jasotzerakoan ordea euskararen fonetikak zorabiatzen bide zuen: «Agura, contrapas, anarxuma, zaspil, triñtzka, soka, aguruku, taladera», alabaina, ez ditu batereko zalantzarik koreografiak gordetzen duten esangura zaharra deszifratzerakoan, bere aburuz, euskal dantzegiaren ardatza, baserriaren bizitzaren idurikapen estilizatua litzatekelakoz besterik gabe.

Arras ezaguna dakiguke honezkerok biblian protestante banatzailea zen George Borrow bidaiari ingelesaren profila. Pio Barojak ere honen idazki zoroak irakurri zituen gaztetan, baita hain ezzaguna gerta daitekeen *Lavengro* izenburuko autobiografia ere, eta, besterik ez zitekeenez izan, zozotzat jo zuen XIX. mendeko misiolari berezia. Horrela pentsatzeagatik ere, bere idazkietarako erabili zuen pertsonaia izan zen, *Mayorazgo de Labraz* elaberrian aski argi igeri daitekeenez. Ez dakigu zozotzat ere jo zuentz, baina Borrowekin ertsiki parekatzeko gaztel idazle donostiarrek ez bide zeukan zalantza haundiegirik, pertsonalki elkar ezagutzen bazuten arren. Walter Starkiez ari gara naski, Dublingo unibertsitatean espainera irakaslea genuena. Hispanista ona eta espainerazko klasikoaren itzultzaile aparta, erromantizismo kutsu nabarmena zerion alde guzietarik, ijitoenganako zeukan miresmen itsuak neurri batean erakusten zigunez. Menéndez Pidalen *Poesía juglaresca y juglares* izenburuko liburuaren irakurketak erabat txunditurik, ertaroko musikari koblakari ibilkari, so'ik so, penintsulako bazterrek harrotu zituen eskale. Bizitakoak txirikordatu, *Spanish raggle-taggle: adventures with a fiddle in north Spain* izenburua daroan liburua agertarazi zuen Londonen 1934.ean. Edozelan ere, Starkiendako horixe ez zen gauza erabat berria, izan ere, aurretik ekialdeko Europako antzeko bidaiarik egin baitzuen, *Raggle-taggle: adventures with a fiddle in Hungary and Roumania* 1933.eko idazkia frogagarri. Arrabita jole dublindarra Euskal Herrian ere aritu zen, Ordizian hain zuzen ere, Lucas izeneko ijitoak lagundurik. Herriko plazan lanean bakarrik ziharduela, Lucas azaldu zitzaion: «Lachés chibeses brother», romani-english dateke honakoa, «you have arrived just in time for the chibe-baró». Laburbilduz: festak ziren. «The basque puts much more energy into his fiesta that we do into our merrymaking. He puts every ounce of energy into his holiday amusements. He runs races, he climbs greased poles for a prize, he watches bull-fights, he plays pelota, and he dances acrobatically». Eta dantzek, bereziki dantzek, aztitu zuten irlandarra, arreta osoa ebatsi ziotelarik.

Hainbat urteren buruan, gerratea bukaturik, Dublingo irakaslea Done Jakueko bidaiari lotu zitzaion, *The road to Santiago* 1957.eko idazkian jaso zuen legez. Hartan ere Euskal Herriari buruzko zenbait zertzelada zizelkatu zituen *Basque witches* goiburuean. Ohiko bidean zegoela, Iruñeraturik, lagun giputz aunitzen gonbitea jaso zuen Nafarroatik aldentzeko: «And follow the basque jacobean road by Irun, Hernani, Billabona, Tolosa, Villafraña, Zaldueño, Salvatierra, Vitoria, Miranda, Pancorbo, Briesca and so on to Burgos». Tentaldia ezin saihesturik, Iruñetik Hondarribiara abiatu zen: «My short visit to Fuenterrabia coincided with a characteristic basque minstrel gathering given by a farmer». Festa txiki hori akordeolari eta saxofon jole bikote batek alaitu zuen, baita bertsolari batek ere: «After more music from the accordion and saxophone a young bertsulari or poet improvised verses in my honour and sang cradle-songs in basque». Alabaina, bileran zegoen Ataungo bati jatorriko historia bitxia ere jaso zuen, ezertan ere gure glzona harritu ez zuena: «Y was not surprised to hear that Nemesio came from Ataun. When I had visited the neighbouring village of Ezkioga where people had seen visions, I met a visionary from Ataun who assured me solemnly that he had seen the Devil in person. He was a tall figure dressed in black with red hair and long teeth like a wolf». Piztiaren zantzia. Anjel Lertxundi dantzan eragin duena ote? ■

# Ehoziri-lana, bizirik eta indartsu

*Euskal Herriko eta hemendik kanpoko 500 enkajegile inguru bildu ziren igandean Lizarran*

**J** oan den igandean, Euskal Herriko eta beste hainbat lekutako enkajegileak bildu ziren Lizarrako Santiago plazako arkupeetan. Denetara 500 lagun inguru elkartu zen Lizarraldeako Enkajegileen Elkarteak deituta. Eguraldiak ez zuen lagundu eta goizean goizetik euria izan zen protagonista, baina hala eta guztiz ere, bolilloek kuxinaren gainean elkar jotzean egiten duten soinua ederki entzun ahal izan zen Lizarran.

Edurne Elizondo / Lizarra

GOIZEKO 9:30etarako, eta Lizarrako Santiago plazako zuhaitzen itzalpean, prest ziren mahai eta aulkiak Euskal Herriko eta hemendik kanpoko ia 500 enkajegilek lan egin zezaten. Lizarrako ehoziri-lanaren erakustaldiko partaideak baino lehen, ordea, euri zaparrada galantak ekarri zituzten goibelak ailegatu ziren. Plazako arkupeetan bilatu behar izan zuten denek babesa.

Ur tantek ez zuten Lizarran bildutako enkajegileen gogoa zapuztu, eta giro ederra izan zen egun osoan nagusi. Ia arratsaldeko hirurak arte, lanean izan ziren hainbat lekutatik heldutako talde guztiak, trikitixaren doinuak alaiturik, eta, ondoren, Aiegiko Iratxe hotelean bazkaldu zuten, bai eta dantza egin ere.

Ehoziria zer den ez zekitenek igandean izan zuten zalantza guztiak argitzeko aukera paregabea, eta beste askok uste okerak argitu zituzten Lizarrako jaiari esker; jende askorentzat aspaldiko amonen kontua baino ez baita ehoziri-lana, eta hori erratea, ehoziri-lana bezain eskulan eder eta ikusgarri bati buruz oso gutxi erratea da.

**Gizonezkoak ere enkajegile** • Kuxina, ehoziariak, haria eta orratz burudunak ditu ezinbesteko enkajegileak. Hortik aurrera, aukerak eta moduak amaigabeak dira. Eta Lizarrako bilkura izan zen igandean horren erakusgarri. Nafarroa (Iruñea, Tuter, Tafalla, Lizarra, Zangoza, Mendavia, Lodosa, Zarrakaztelu, Cadreita, Barañain, Azagra, Buñuel eta Andosilla), Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Lapurdiko lagunak ezezik, Galizia, Katalunia, Aragoi, Madril eta Errioxakoak ere hara hurbildu ziren, besteak beste.

Basauritik ailegatu zen Lizarrara, Gaztela eta Leongo Etxetik, Ablitasko Marisol. Oraindik ez da urtebete igaro ehoziri-lana egiten hasi zenetik, eta igandekoa, lehenengo erakustaldia izan zen harentzat. Pozik zen nafarra, eta erran zigunez, «behin gogoz ekin eta gero, ez da dirudien bezain zaila ehoziri-lana».

Eta ehoziri-lana ezagutzen ez duenari, hain zuzen, harien ar-



Patxi Zabalak Lizarran bildutako guztien arreta erakarri zuen joan den igandean.

LUIS AZANZA

teko korapilo handia iruditzen zaio bolilloen mundua. Ez, ordea, Lidiari, sei urteko Azkonako neskatolari. Kuxina izterren gainean jarrita eta ehoziariak eskuetan hartuta, punto erdia nola egin ikasten ari zen, taldekide baten ondoan. Eta eman beharreko pausoak ez ahazteko, orratz burudunekin hartuta zuen kuxinaren gainean egin behar zuena idatzita zuen orria.

Lidiaren aurrean, haren adin inguruko mutikoa ari zen ehoziariekin lanean; bolilloen munduan emakumeak gehiengo badira ere, ez baitira bakarrik, eta gizonezkoak, gero eta gehiago sartzen ari dira kuxin eta ehoziarien lurraldean. Horieta bat da Pa-

txi Zabala. Orain dela zortzi hilabete hasi zen ehoziri-lana egiten, nahiz eta urteak izan irakaslea etxean duela, Iruñeko talde bateko irakasle Angelines Urbano baitu emazte.

Irakaslearen gainontzeko ikasleak bezala ehoziarien sekretoak argitzen hasia bada ere, Patxi da Lizarrakoa bezalako erakustaldietan ikusleen arreta gehien erakartzen duena. «Jendea harritu egiten da, jakinminez hurbiltzen dira nigan». Igandean ere hala gertatu zen. Ehoziariak eskuetan hartu eta lanean ari zela, «begira, gizon bat ehoziri-lana egiten» bezalako komentario bat baino gehiago entzun ahal izan zen haren inguruan.

Jende gehienari bezala, oso zaila iruditu zitzaion ehoziri-lana Patxiri hasieran, baina orain, gauza eder asko egiteko gai dela konturatu da, «eta uste baino errazagoa da», azpimarratzen du. Lizarrako erakustaldian, dena den, ez zen Patxi gizon bakarra izan, Donostia, Zangoza eta Madrilgo taldeetan ere gizon bana baitzegoen.

Angelines Urbanok 45 ikasle inguru dauzka, eta horietako 30 Lizarran izan ziren igandean. Extremadurako herri Acebon jaioa da eta txikitandik ezagutzen du ehoziri-lana. Hainbat urtez, hain zuzen, hamar, hamabi eta ordu gehiago eman ditu egunean kuxina eta ehoziarien aurrean, enka-

jea egin eta saltzeko. Orain, lana baino zaletasuna da ehoziri-lana harentzat.

Zaletasun lasaigarria, gainera, Acebokoak azpinarratu duenez. Angelines Urbanok, gainera, ehoziri-lana edozeinek egin dezakeela nabarmendu nahi izan du, «nahiz eta askok pentsatu aspaldiko amonen kontua dela. Mota askotako jendea etortzen da nirekin ikastera».

Puntu eta enkajerik politenak, dena den, aspaldiko amona horiek asmatutakoak direla gaineratu du irakasleak. «Gauzarik ederrenak eta zailenak lehen egiten zirenak dira. Gaur egun ia ez da deus berririk asmatzen, eta asmatzen dena oso erraza da».

## Gero eta enkajegile gehiago Nafarroan

LIZARRAKO erakustaldiak argi utzi zuen ehoziari-lanak gora egin duela gure herrialdean azken urteetan. Eta ez hemen bakarrik. Hil honen 4an ia 800 enkajegile bildu zen Donostiako Gipuzkoa plazan egin erakustaldian. Udako hilabeteetan, Nafarroako eta hemendik kanpoko beste herrietan egiten dira halako beste erakustaldi asko, gainera, besteak beste Erriberri, Gasteiz eta Zaragozan.

Lizarrakoari dagokionez, eguraldiak lagundu

ez bazuen ere pozik ziren antolatzaileak, Lizarraldeko Enkajegileen Elkarteak kideak, alegia. Eta Dori Sagasti elkarteak lehendakariak azaldu zigunez, «ehoziri-lana bultzatu» nahi dute igandean bigarren aldiz ospatu zuten bilkuraren bidez.

Lizarraldeko Enkajegileen Elkarteak 80 kide ditu gaur egun. Iaz hasi zen ikasturtean, hain zuzen, 24 lagun berrik eman dute izena ehoziri-lana egiten ikasteko, eta horietako bederatzi haurrek dira, neska eta mu-

tilak. Bi urte eta erdi besterik ez du txikienak, Neli Iribarririk. Hori dela eta, ehoziri-lanak etorkizun polita duela ziur da Dori Sagasti. Iraganak, dena den, bizirik dirau oraindik, 91 urte baitzuen Lizarran igandean egon zen enkajegilerik zaharrenak.

Nafarroan ehoziri-lanak gora egin badu, Galizia eta Katalunian beti bezain indartsu edo gehiago dago egun. Galizia eta Kataluniako enkajegileak Lizarran izan ziren igandean ere, egiten duten lana erakusteko. Galiziatik Ca-

marifñas herriko enkajegileak etorri ziren Nafarroara, ehoziri-lanaren iturburuetako bat. Han, adibidez, ehoziri-lana arropen eta modan sartzeko ahalegin handia egin dute, bai eta lortu ere. Ehoziri-lanari esker bizi da, finean, herri osoa.

Nafarroako taldeek afizioz egiten dute lan ehoziariekin, baina hala eta guztiz ere, ehoziri-lana berritzeko eta erabilera berriak bilatu eta aurkitzeko ahalegin handia egin dute. «Aukerak, azken finean, amaigabeak

dira, eta kuxin eta ehoziariekin gauza asko egin daiteke», dio Dori Sagastik.

Ehoziri-lanari erabilera berriak bilatzea, adibidez, Iruñeko irakasle Angelines Urbanoren kezketariko bat izan da beti. «Eguzkeraren erabilteko da ehoziri-lana, gozatzeko, ez gure amonek egiten zuten bezala urrea balitz bezala gordetzeko. Erakutsi behar den beste bitxi bat da niretzat, lan asko egin ondoren lortutakoa, gainera», azpimarratu du Acebokoak. X

◆ Aurelio Arteta ◆ EHUko Etika eta Filosofia Politikoko katedraduna

# «Euskara galtzea ez litzateke oso larria»

**N**afar Ateneoak Aurelio Artetaren ekime-  
nez euskararen inguruan  
egin duen zikloa gaur arra-  
tsaldean amaituko da, Ar-  
cadi Espada 'El Pais' egun-  
kariko kazetariaren hitzal-  
diarekin. Artetak dioenez,  
euskararen inguruko fik-  
zioa eta mitoak argitara  
ateratzea izan da zikloaren  
helburua.

Ana Unanue / Iruñea

ARTETARI «gehiegizkoa» irudi-  
tzen zaio Nafarroako Gobernu-  
aren Hizkuntz Politika. Euskara  
galduko balitz, berriz, ez litzaloke  
hain «galera objetibo larria» iru-  
dituko.


■ **Hizkuntz politikaren helburua  
herritar guztien hizkuntz es-  
kubideak bermatzea bada, nola  
izan daiteke gehiegizkoa?**

Gehiegizkoa da errealitatea  
kontuan hartzen ez badu eta, nire  
ustez, Nafarroan gehiegizkoa da.  
Eremu euskalduneko hizkuntz  
politika egokia iruditzen zait,  
baina eremu mistokoa oso ezta-  
baidagarria da. Iruñea eremu  
mistoan dago, eta hor euskaldun  
kopurua askoz ere txikiagoa da.  
Horregatik iruditzen zait buru-  
gabekeria koofizialtasuna horrai-  
no zabaltzea. Fiktizioa iruditzen  
zait. Are gehiago, jendearen kon-  
tzentzia nahasten ari gara, alfe-  
rrikako gatazka larria sortuz.

■ **Ez dut ulertzen nola izan dai-  
tekeen kaltegarri euskaldunei  
zenbait eskubide aitortzea.**

Eskubide bat onartzen denean  
betebehar bat sortzen da beti, ka-  
su honetan batez ere Administra-  
zio publikoari. Nafarroan % 10  
besterik ez dira euskaldunak eta  
beste ez dakit zenbatek euskal-  
dun izan nahi dute, baina desioek  
eta aspirazioek ez dute eskubide  
bat sortzen zuzenean, are gutxia-  
go desio hori kanpotik eraginda-  
koa bada. Aztertu egin beharko  
da desio horiek gehiengoaren na-  
hiarekin bat datozen ala ez, eta  
ondoren lehenetasunak zehaztu.

■ **Orduan ados zaude Barañaingo  
Udalak atera zituen lanpostu  
elebidunak balio gabetu dituen  
epaiarekin? Epailak dioenez  
diskriminatzailea da lanpostu  
publiko baterako euskara es-  
katzea.**



Aurelio Arteta, Hizkuntza propioen egia eta fikzioa zikloaren antolatzailea.

LUIS AZANZA

Epaia ez zait zuzena iruditzen.  
Barañaingoa eremu mistoan dago-  
nez, herritarrek euskarazko zer-  
bitzuak eskatzeko eskubidea  
dute. Hortaz, kontratatu beha-  
rreko langileek jendearekin ha-  
rremanetan egon behar bazuten,  
legezkoa zen euskara eskatzea.  
Nire ustez arazoa ez da epaia, Ba-  
rañaingoa eremu mistoan egotea  
baizik, horrek dakartzan betebe-  
har guztiekin. Legea betetzeko  
dago, baina legeak ezin du erre-  
alitatea alde batera utzi. Eta Na-  
farroan desitxuratu egin dugu  
errealitatea, fikzio handi bat sor-  
tu da euskararen inguruan.  
«Euskara galzorian utzi genuen,  
eta orain berreskuratu egin behar  
dugu», hori da nik kritikatzan  
dudan jarrera.

■ **Berdin zaizu euskara desager-  
tzea?**

Euskaldunentzat izugarriko  
galera subjektiboa izango litzate-  
ke; sekulako nahigabea eta bi-

hozmina eragingo lieke, eta ben-  
etan ulertzen dut hori. Baina, hiz-  
kuntzak zer diren jakinda, ez li-  
tzateke oso galera objetibo larria  
izango. Lehenik, ez delako egia  
hizkuntzek munduaren ikuskera  
berezia, aberatsagoa, ematen  
dutenik. Bigarrenik, euskaldu-  
nak hizkuntz komunitate han-  
diago batera bilduko liratekeela-  
ko, eta alde horretatik komunika-  
tzeko eta informazioa trukatzeko  
aukera handiagoak izango litzu-  
kete.

Hizkuntzak desagertzea ez da  
txarra berez. Latina desagertu  
egin zen, eta latinetik ez dakit  
beste zenbat hizkuntza sortu zi-  
ren. Grekoa ere desagertu zen, eta  
etengabe ari gara hitz grekoak  
erabiltzen. Horregatik diot nork  
bere hizkuntz komunitate txikia  
uztea ez dela hain galera larria. Ez  
dut esan nahi euskaldunek be-  
raien hizkuntzari eusteko esku-  
biderik ez dutenik, baina ez dut

ulertzen nola egin daitekeen hiz-  
kuntz politika bat euskaldunak  
% 10 besterik ez direla ahaztuta.  
Ezin da besterik gabe onartu hiz-  
kuntza hori inoiz jakin ez duten  
% 90ek betebeharren bat dutela  
euskararen aldetik.

■ **Agian euskalduna ez zarelako  
pentsatzen duzu horrela. Ez  
dizu erreparorik ematen ele-  
bakarra izanda horrenbeste  
hitz egitea euskaraz?**

Ez dut inolako erreparorik,  
errealitate hori ezagutzeko ez de-  
lako ezinbestekoa euskara jaki-  
tea, errealitate ingelesa ezagu-  
tzeko ingelesa jakitea ere derrig-  
orrezkoa ez den bezala. Ni Do-  
nostian eta Iruñean bizi naiz, Fi-  
losofia Politikoko katedraduna naiz,  
eta errealitate hori euskaldun ge-  
hienek baino dezente gehiago az-  
tertu dut. Gainera, oso gutxi-  
k egiten dute euskaraz; dakitenek  
ere normalean txikitean baka-  
rrik erabiltzen dute.

■ **Jose Luis Mendoza Hizkuntz  
Politikako Zuzendaritzan ze-  
goenean zure pentsamoldea  
arriskutsua zela esan zidan;  
'kolonialisten biktimismoa'  
deitzen zuen berak, eta pentsa-  
kera horren atzean erdaldunak  
gaur egungo status-a galtzeko  
duten beldurra besterik ez ze-  
goela uste zuen.**

Oso erraza daukat nire burua  
defenditzea. Ez Mendozak, ez Pe-  
trizanek, ez Rodriguez Otxoak, ez  
Perez de Viñasprek... Hizkuntz  
Politikako inork ez du sekula gai  
honen gainean eztabaidatzerik  
nahi izan. Gonbite ugari egin  
arren, herrialde honetan inork  
(Patxi Zabaletak salbu) ez du  
onartu eztabaida honetan sar-  
tzea. Askotan eskatu dut euska-  
rari buruzko eztabaida publikoa,  
nire ustez Nafarroak duen ara-  
zorik garrantzitsuena da-eta,  
autobia bat edo Itoizko urtegia  
baino askoz ere inportanteagoa. x

s o s l a i a

Zangozan sortua duela 51  
urte, Aurelio Arteta Etika eta  
Filosofia Politikoko katedra-  
duna da EHU'n, Zorroagako  
fakultatean. Horrega-  
tik, etxea Iruñean izan  
arren, astean zenbait  
egun ematen ditu Do-  
nostian.

Duela bi urtetik Nafar  
Ateneoko Zientzia Mo-  
ral eta Politikoko  
batzordeko burua da.  
Nafar Ateneoan bost  
ziklo antolatu ditu: le-  
hena ustelkeriaz, bi-  
garrena topikoez, bes-  
te bat demokraziaren  
eta alderdi politikoen  
gainean, beste bat  
kale indarkeriaren in-  
gurukoa eta, azkenik,  
aste honetakoa, eus-  
karari buruzkoa.

Sutan jartzen da al-  
derdi sozialistaren  
kordakoa edo 'gazte-  
lantaren martiria' dela  
eta euskararen ingu-  
ruan dituen ideiak  
'atzerakolak' direla  
esaten badiote. Berak  
dioenez, askoz ere es-  
kuindarragoak eta  
atzerakolagoak dira  
nazionalistak.

## BEKARIO!

Zaldi Eroa

